

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 66/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baitira Artisautza Sustatzeko 2021eko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

Ekonomia Sustatzeko Saila Bizkaiko gizartearen eta sare ekonomikoaren zerbitzura dagoen tresna bat da, helburu hauek dituena: Bizkaia lurralde berritzaile, talentudun, erakargarri, konektatu eta orekatu gisa finka dadila sustatzea eta biharko Bizkaia bereizgarria kalitateko enplegua sortzeko eta mantentzeko ahalmen handia izan dadila bermatzea, Europako abangoardia ekonomiko eta sozialean iraun dezan. Horrez gain, Ekonomia Sustatzeko Sailak lan egiten du Bizkaia kanpoko irudia indartzeko eta Bizkaiko estrategia turistikoa diseinatu eta garatzeko.

Ekonomia Sustatzeko Sailari esleitutako arloen artean daude, besteak beste, artisautza-sektoreari buruzko programak eta jarduketak garatzea eta Bizkaiko artisautza sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.18 artikuluan ezarritakoaren arioren, artisautza-eremuan izan beharreko eskumen eskusiboari buruzkoa, hain zuzen, eskumen hori Lurralde Historikoetako erakundeei atxiki zaie, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 12.7.a) artikuluen bidez. Eskumen horren egikaritzari dagokionez, Ekonomia Sustapen Sailak bi jardueren mota garatu ditu: artisautza-sektorearen antolamendua, Bizkaiko artisautza-sektorearen arauketaren eta artisautza-enpresen erregistroaren kudeaketaren bidez eta artisautza-sektorearen sustapena, Foru Dekretu honek xedatzen dituen diru-laguntzen bidez.

Artisautza sustatuz, hobetu egin nahi da arlo horretaz jendeak duen iritzia, eta gure gizartearen ongizate kultural, sozial eta ekonomikoan oro har duen balioa ikusarazi.

Era berean, Bizkaiko artisautza-sektorea indartu nahi da, jardueren profesional gisa, artisau-lanen kalitatea bultzatuz eta ikuspegi berritzaileak sustatuz, trebetasun eta negozio-eredu berrien bitartez.

Horrez gain, gaur egun, arreta berezia jarri behar dugu COVID-19ak sortutako krisiaren ondorioetan, krisi horrek sektore ekonomiko guztiei eragin baitie. Bereziki, merkataritzarekin eta turismoarekin lotutako jarduerak egiten dituzten autonomoei eta beren salmentak, funtsean, jende asko biltzen duten azoka eta jardueren bitartez egiten dituztenei.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bitartez, artisautza sustatzeko programa aurkeztu du, zeinak, 2021eko ekitaldirako, kapitulu bat baitu COVID-19aren ondoriozko egoera arintzen laguntzeko neurri espezifikoak dakartzana, aurreko deialdian bezala.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikulua dio foru-diputatuen eskumena dela Foru Aldundiari proposatzea beren sailek berezkoak dituzten gaien buruzko Foru Dekretu proiektuak, hark onets ditzan.

Hortaz, 2021eko ekitaldiari dagokionez, artisautza-sektorea sustatzeko laguntzen araudia eman behar da; hau da, laguntzen oinarri arautzaileei eta deialdiari dagokiena.

Foru Dekretu honetan genero-ikuspegia txertatu da, bai haren prestalanean, bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan (aurrerakoan, 4/2018 Foru Araua) ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da zer xedatzen den 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baitira genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak; ebaluazio hori aurreikusita dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean



(aurrerakoan, 4/2005 Legea). Ildo horretan, honen tramitazioan, Foru Dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoa-eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

Azkenik, ekonomiaren eta gizartearen aurrerapena lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egitea, eta horretarako, urte asko daramatza berdintasunaren arloan lanean. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak 2016-2019 aldirako diseinatutako estrategiak eta jarduerak jasotzen ditu, eremu horretan planteatzen diren erronkei erantzun ahal izateko. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko egindako lanarekin jarraitu behar denez, Ekonomia Sustatzeko Sailak bere helburuak finkatu ditu, besteak beste, emakumeak enpresetan benetan sartzeari lortzeko, batez ere industria-enpresetan eta oinarri teknologikoko enpresetan, zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen arteko oreka lortzeko eta soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko neurriak abian jartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 207/2019 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, sail horren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 15ean).

Dekretu honen garapenean, gainera, gizarte-neurriak ezarri dira, kontuan harturik zer ezartzen den Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuan, zeinak, batetik, aldatzen baitu Dirulaguntzen Erregelamendua, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta, bestetik, onartzen baitu Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza-prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida.

Halaber, foru dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die.

Horrenbestez, Ekonomia Sustatzeko Sailaren foru-diputatuak proposaturik, eta behin Bizkaiko Foru Aldundiak gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DA:

I. TITULUA

DEKRETUAREN XEDEA

1. artikulua. — Dekretuaren xedea

Dekretu honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko artisautza-sektorea dinamizatu eta bultzaberritzeko ematekoak dituen laguntzak ezarri eta arautzea.

Hala, programa honetan ezarritako neurrien bitartez, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Artisautza-enpresak eta haien produktuak sustatzea.
- Ikuspegi berritzaileak sustatzea, trebetasun eta negozio-eredu berriak garatuz.
- Artisautza-enpresen sorkuntza bultzatzea.
- Artisauen trebakuntza-maila hobetzea.
- COVID-19aren krisiak Bizkaiko artisautza-sektorean eragindako inpaktua arintzea.
- Enpresen elkartegintza bultzatzea.

Helburu horiek guztiak gauzatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena txertatuko da, guztion zeharkako arlo gisa eta bera bere horretan helburu dela, eta sexuen araberrak rolen ezabaketa sustatuko da.

Artisautza Sustatzeko Programa hiru jardueraren bitartez gauzatu da:

- 1. arloa: COVID-19aren krisiaren ondoren artisau-enpresei laguntzeko neurriak.
- 2. arloa: artisautza-enpresek beren lehiakortasuna sendotzeko egindako jarduketak.
- 3. arloa: Artisautza-elkarteek bultzatutako jarduketak.

**II. TITULUA
JARDUKETA- ARLOAK****I. KAPITULUA****1. ARLOA: COVID-19AREN KRISIAREN ONDOREN ARTISAU-ENPRESEI
LAGUNTZEKO NEURRIAK****2. artikulua. — Helburua**

Arlo honen bitartez, Bizkaiko artisautza sendotu nahi da, eta COVID-19 gaitzak eragindako krisia arindu.

3. artikulua. — Erakunde onuradunak

Foru Dekretu honetako 1. arloan adierazitako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte nortasun juridikoa duten artisautza-enpresek eta banako artisauak edo ondasun-erkidegoetan eratutakoek. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zerga-egoitza eta sozietate-egoitza Bizkaian izatea.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako produkzio-zentro batean gauzatzea beren jarduera.
- c) Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea.
- d) Alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokien epigrafean. Epigrafe horretako jarduerak bat etorri behar du Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan alta emandako jarduerarekin.
- e) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharren ordainketa ere.
- f) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duen ezein inguruabarren mende.
- g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.
- h) Ezin izango dira deialdi aurkeztu, ez onuradun izan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten erakundeak.
- i) Orobat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Baldintza hauek bete behar dira laguntza eskatzen den datan. Era berean, dirulaguntza justifikatzen den egunera arte mantendu beharko dira, baldin laguntzaren esleipendun gertatu badira.

4. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitatea

Arlo honetan, erakunde onuradunen jarduera profesionalaren egitura eta funtzionamenduko gastuak dira diruz lagundu daitekeen egitatea.

5. artikulua. — Diruz lagun daitezkeen gastuak

Deialdi honetarako, artisautza-jarduera profesionala mantentzeko egiten diren gastu arruntak joko dira jarduera profesionalaren egitura eta funtzionamenduko gastutzat: Gizarte Segurantza, autonomo-kuotak, argia, telefonoa, Internet, artisautza-elkarteetako partaidetza-kuota, aseguruak eta jardueraren maileguen interesak.



Kasu guztietan, aski den adina justifikatu beharko da gastua, eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren aburuz beharrezkoa eta koherentea izango da enpresaren artisautza-jardueraren garapenarekin.

Honako hauek ez dira hartuko arlo honetan diruz lagun daitekeen gastutzat:

- Bigarren arloan diruz lagundu daitekeen edozein gastu.
- Zergak eta tasak, BEZa barne (baita BEZa berreskura ezin daitekeen kasuetan ere).
- Enpresa eskatzaileari lotutako enpresen edo pertsonen bidez egindako gastuak.
- Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin inolako dudarik gabe identifikatu ezin diren gastuak eta/edo deialdi honetan ezarritako egikaritze-epean fakturatzen ez direnak.

6. artikulua. — *Gauzatze- epeak*

Erakunde onuradunek dekretu honen 1. arloaren babespean egindako gastuak 2021en zehar gauzatu beharko dira.

7. artikulua. — *Laguntzen zenbatekoa*

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen gastuaren %100 izango da, gastu hori behin aurkeztuta eta onartuta: gehienez, 1.500,00 euro erakunde onuradun bakoitzeko.

8. artikulua. — *Eskabidean aurkeztekoak diren agiriak*

Arlo honetako laguntzen onuradun izan nahi duten enpresek, eskabidearekin batera, agiri hauek bidali beharko dituzte Ekonomia Sustatzeko Sailera:

- Eskabidea bera, dekretu honen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta banku-helbideratzea aldatu nahi bada, Bizkaiko Foru Aldundiak duen informazioa eguneratzeko.

9. artikulua. — *Justifikazioan aurkeztekoak diren agiriak*

Dirulaguntzen onuradunek, izan pertsona zein enpresa, 2022ko otsailaren 28a baino lehen justifikatu beharko dute gastua. Horretarako, dekretu honen 54. artikuluan ezarrita dagoen legez, agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Egindako gastuen fakturak, emandako laguntzaren zenbateko osoari dagozkionak.
- Aipatutako fakturen ordainketa-frogagiriak.

II. KAPITULUA

2. ARLOA: ARTISAUTZA-ENPRESEK BEREN LEHIAKORTASUNA SENDOTZEKO GAUZATUTAKO JARDUERAK

10. artikulua. — *Helburuak*

Arlo honen bitartez, egun dauden artisautza-enpresen lehiakortasuna eta garapena bul-tzatzearen alde egiten da, bai eta gure Lurraldean enpresa berriak sustatzearen alde ere.

11. artikulua. — *Erakunde onuradunak*

Foru Dekretu honetako 2. arloan adierazitako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte nortasun juridikoa duten artisautza-enpresek eta banako artisauek edo ondasun-erkide-goetan eratutakoek. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Bizkaian edukitzea zerga-egoitza eta sozietate-egoitza.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako produkzio-zentro batean gauzatzea be-ren jarduera.
- c) Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko bal-dintza guztiak betetzea.



- d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan eurei dagokien epigrafean alta emanda egotea, betiere Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan alta emandako jarduerarekin zerikusia duen artisautza-jarduera batean.
- e) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharren ordainketa ere.
- f) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duen ezein inguruabarren mende.
- g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.
- h) Ezin izango dira deialdira aurkeztu, ez onuradun izan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten erakundeak.
- i) Orobat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Baldintza hauek bete behar dira laguntza eskatzen den datan. Era berean, dirulaguntza justifikatzen den egunera arte mantendu beharko dira, baldin laguntzaren esleipendun gertatu badira.

12. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitatea

Honako hauek joko dira diruz lagun daitekeen egitatetzat:

- a) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.
- b) Makinen eta tresnen eroste-kostua, bai eta ekoizpenaren eta salmentaren baldintza higieniko-sanitario egokiak bermatzeko beharrezkoak izan litezkeen bitartekoen eskuratze-kostua ere.
- c) Ekipamendu informatikoaren eta softwarearen eroste-kostua.
- d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea; bereziki, Interneten erabilerari eta sare sozialei buruzkoetan.
- e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea.
- f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea.
- g) Azoketan parte hartzea.
- h) Enpresaren kudeaketa edota bideragarritasuna hobetzeko kanpo-aholkularitza.
- i) Artisautza-lantegia alokatzea.

Diruz lagun daitezkeen egitate horiek gauzatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena txertatuko da, guztion zeharkako arlo gisa eta bera bere horretan helburu dela. Hori honela gauzatu ahalko da: parte-hartze paritarioa sustatuz, azoketan eta beste jarduketa batzuetan genero-ikuspegia sartuz, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiliz, eta abar.

13. artikulua. — Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagun daitekeen oinarria zenbatesteko, enpresa eskatzaileak aurkeztutako jardueraren aurrekontuari begiratuko zaio, gastu-kontzeptuen arabera xehakaturik.

Bereziki, honako hauek joko dira diruz lagun daitekeen kostutzat:

- a) Artisautza-lantegiak jarri, handitu edo eraberritzea:
Artisautza-jarduerako lokala egokitzeko lanen gauzatze-kostua. Ez dira apartatu honetan sartu ez proiektu-fasearen kostuak, ez obrari datxezkion tasak.
Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezkeen, izan beharko dute jarduera hasi aurreko komunikazioa, obrak hasi aurreko komunikazioa edo, halakorik badago,



obra-lizentzia, eta, era berean, gutxienez bi urte egon beharko du enpresaren aktiboan, dirulaguntza eman den egunetik zenbatzen hasita.

Diruz lagun daitekeen objektuak egokitze-lanei egingo die erreferentzia baldin eta hauek hobetzeko badira soilik: produktibitatea, jarduera segurtasunez gauzatzeko baliabideak eta ingurumen-egoera. Esku-hartze hauek ezingo dira diruz lagundu:

- Estalki edo fatxadetako erreformak edo konponketak.
- Leihoak edo ateak jartzea.
- Bideozaintzako edo intrusioen kontrako segurtasuneko sistemak.
- Berokuntzako edo aire girotuko instalazioak.
- Komunen erreformak.

Erreformak egiten badira aldi berean lantegi eta etxebizitza edo saltoki diren lokaletan, edo hauek etekin bat dakarten ikastaroak emateko erabiltzen badira, lantegirako erabilitako m² kopuruari dagokion portzentajearen arabera onartuko da gastua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, enpresak kontzeptu horregatik hiru urtetik beherako denboran dirulaguntza jaso duen kasuetan, lokalaren aldaketa edo/eta erreforma aski arrazoituta egon beharko da Ekonomia Sustatzeko Sailaren aburuz.

- b) Makinen eta tresnen eroste-kostua, bai eta ekoizpenaren eta salmentaren baldintza higieniko-sanitario egokiak bermatzeko beharrezkoak izan litezkeen bitartekoen eskuratze-kostua ere.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du enpresak; halaber, gutxienez bi urte egon beharko du enpresaren aktiboan, eskuratzen den unetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, produktuaren eroste-fakturan adierazitako egunaren hurrengoan hasiko da zenbatzen epe hori.

- c) Ekipamendu informatikoaren eta softwarearen eroste-kostua:

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du enpresak; halaber, gutxienez bi urte egon beharko du enpresaren aktiboan, eskuratzen den unetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, produktuaren eroste-fakturan adierazitako egunaren hurrengoan hasiko da zenbatzen epe hori.

Kontzeptu beragatik dirulaguntza lortu eta bi urte igarotakoan soilik lagunduko dira diruz ekipamendu informatikoaren erosketak.

Software-programak, gehien jota, urtebeteko lizentziaren prezioari proportzionalki dagokion zenbatekoan lagunduko dira. Enpresan zenbat langile, hainbeste lizentzia onartuko dira gehienez.

- d) Prestakuntza-ikastaroetako matrikularen kostua. Prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea; bereziki, Internet eta sare sozialen erabilerari buruzkoetan.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezten, ikastaro horiek justifika daitekeen eran eragin behar dute enpresa-jardueraren hobekuntzan; ikastaroen barruan sartzen dira ohiko bitartekoen zein sare sozialen bidezko sustapen komertzialari buruzkoak, tresna teknologikoen erabileraren ingurukoak eta/edo antzeko gaiak jorratzen dituztenak.

- e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea:

Jarduerari buruzko webgune bat egin eta eguneratzea, bai eta web hori onlineko salmenta-kanal batean sartzeta ere.

Era berean, honako hauetan integratzeko kostuak ere sartzen dira: sare sozialak, hirugarrenen atariak edo sustapen eta komertzializazio bateratuan diharduten Interneteko plataforma elkartuak.



Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezen, diruz lagundutako elementuek ageriko leku batean agertu beharko dute Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa.

Gainera, kontuan hartuko da, nahitaez, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua.

Kontzeptu honetan, kontuan hartuko da hizkera ez-sexista erabiltzea.

f) Sustapen-materialen ekoizte-kostua:

Epigrafe hau euskarri fisikoa duten sustapen-materialei dagokie. Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, ekoiztako materialak ageriko leku batean erakutsi beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa.

Gainera, kontuan hartu beharko dira bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua eta hizkera ez-sexistaren erabilera.

g) Azoketan parte hartzeko zoruaren eta standaren alokairua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezen, artisautza xede nagusia duten azokak izan beharko dute, eta gutxienez bi egun iraungo dute. Standetan, ageriko leku batean erakutsi beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa.

h) Enpresaren kudeaketa edota bideragarritasuna hobetzeko kanpo-aholkularitza.

i) Lantegia lonja edo lokal batean instalatzeko alokairuko gastuak.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2020an lehen aldiz inskribatutako artisau-enpresentzat, diruz lagundu ahal izango dira artisau-lantegiaren 2021eko alokairu-errentak. 2021ean inskribatuentzat, inskripzioetik aurrerako hiletan soilik.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2020 aurretik inskribatutako artisautza-enpresen kasuan, diruz lagundu daitekeen gastutzat joko dira 2021eko alokairuari dagozkionak, baldin eta aurten lokal berri baterako aldaketa egon bada, lehengoak jada ez dituelako betetzen lantegi gisa erabilia izateko behar diren baldintza teknikoak edo edukierazkoak.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, banaka eta beste higiezinetatik bananduta eskrituratutako ondasun bati dagokion kokapena izan beharko da, salbu eta lokal handiago baten zati baten alokairuari dagokionean, baldin eta lokal horretan gauzatzen diren jarduerak oro har artisautza-izaerakoak badira. Orobat, ezingo da etxebizitza gisa erabili.

Honako hauek ez dira joko arlo honetan diruz lagun daitekeen gastutzat:

- Garraio-gastuak.
- Enbalaje-gastuak.
- Material suntsikor edo kontsumigarriak.
- Buzoi bidezko banaketa.
- Erakusleihenaketa apaingarriak.
- Altzariak. Elementu batzuk salbuetsiko dira ezinbestekoak baldin badira jarduera gauzatzean COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz ezarritako segurtasun eta higieze baldintzak betetzen direla bermatzeko.
- Argazki-kamerak eta telefonia mugikorrek gailuak erostea.
- Dekretu honek diruz lagunduta antolatzen diren prestakuntza-ikastaroetara joatea.
- Leasing-a, behin iritsi ondoren haren jatorrizko urteko deialdian aurreikusitako diruz lagun daitekeen gehieneko baliora.
- Finantza-gastuak.
- Zergak eta tasak, BEZa barne (baita BEZa berreskura ezin daitekeen kasuetan ere).
- Enpresa eskatzailearekin lotutako enpresen edo pertsonen bidez egindako gastuak.
- Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin inolako dudarik gabe identifikatu ezin diren gastuak eta/edo deialdi bakoitzean ezarritako epean gauzatzen ez direnak.

**14. artikulua. — Jarduerak gauzatzeko epeak**

Artisau-enpresek dekretu honen babesean gauzatutako jarduerak, 2. arloari dagozkionak, 2021ean hasi eta amaitu beharko dira, d) eta g) apartatuak izan ezik, horien epea izango baita 2020ko uztailaren 21etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoa.

Froga-balio baliokidea duten faktura eta agirietako data-tarteek bat etorri beharko dute jarduerak gauzatzeko ezarritakoekin.

15. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa

Artisautza-enpresek Dekretu honen 2. arloaren babesean egindako eskaerei dagozkien dirulaguntzak zehazteko, kontuan hartu beharko dira behean ezartzen diren gehieneko dirulaguntza-portzentajeak eta gehieneko muga absolutuak.

Jarduketa / Actuación	Dirulaguntzaren gehieneko %a % máximo de subvención	Gehieneko erabateko diru-laguntza (eurotan) Subvención máxima por hecho subvencionable (€)
a) Artisautza-lantegiak jarri, handitu edo erreformatzea Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos.	50	3.000
b) Makinen edo tresnen eroste- kostua / Coste de adquisición de maquinaria y utillaje.		
Berriak / Nuevos.	50	6.500
Erabiliak / Usados.	25	
c) Ekipamendu informatikoaren eta softwarearen eroste-kostua / Coste de adquisición de equipamiento informático y software		
Berriak / Nuevos.	50	2.500
Erabiliak / Usados.	25	
d) Prestakuntza-ikastaroen matrikula-kostua Coste de matrícula en cursos de formación	90	1.200
e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea Establecimiento de canal de promoción y venta online.	50	2.500
f) Sustapen-materialen ekoizte-kostua Coste de elaboración de materiales promocionales	50	500
g) Azoketan parte hartzea: Zoruaren eta standaren alokatze-kostua Participación en ferias: Coste de alquiler de suelo y stand.	90	2.500
h) Enpresaren kudeaketa edo bideragarritasuna hobetzeko kanpo-aholkularitza Consultoría externa para la mejora de la gestión y/o la viabilidad de la empresa.	50	5.000
i) Lantegia lonja edo lokal batean instalatzeko alokairu-gastuak Gastos de alquiler por la instalación del taller en lonja o local.	50	2.000

Horrez gain, arlo honetako gehieneko dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da erakunde onuradun eta deialdi bakoitzeko.

16. artikulua. — Balorazio-irizpideak

Eskaera bati 2. arloari dagozkion dirulaguntzak emango zaizkio baldin eta, onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten enpresek aurkeztutako eskaeren artean, baloraziorik onena jasotzen badu. Horretarako, irizpide hauek erabiliko dira:

- Enpresaren lehiakortasuna hobetzea: Irizpide hau ebaluatzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ahalbidetzen dituzten jarduerak: batetik, jardueraren jarraitutasuna, eta bestetik, produktu-mailako berrikuntza, diferentziazioa, kalitatea handitzea eta enpresen kudeaketa zein negozioaren digitalizazioa hobetzea, irudia, marka, komunikazioa eta bezeroentzako arreta hobetzea, merkatuak gehiagotzea, Bizkaiko artisautza beste merkatu batzuetara zabaltzea...
- Enpresak artisautza-jarduerari eusteko duen konpromisoa: Irizpide hau ebaluatzeko, hauek hartuko dira kontuan: bokazio berrien sustapena, galbitzeko arriskuan diren edo ordezkapen urria duten artisautza-jarduerari eustea, jarduneko esperientzia-urteak, etengabeko prestakuntza...



3. Erakundeak ingurumenarekin duen konpromisoa, proposatutako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa eta erakundeak berdintasunaren eta euskararen sustapenarekin duen konpromisoa.

Irizpide hau ebaluatzeko, kontuan hartuko dira erakunde eskatzaileak aurkezten dituen jadaneko ingurumen-ziurtagiriak, aurreikusitako jarduerak ingurumenean duen eragin positiboa eta erakunde publiko eskudun batek honako hauekin lotuta emandako aitortpenak eta/edo diplomak: emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena, euskararen sustapena eta erantzukizun soziala.

4. Proiektuaren eragin gradua: Irizpide honek ekintza hauek ebaluatzen ditu: Bizkaiko artisauen eta haien hornitzaileen arteko sinergiak sortzeari begira gauzatu-takoak eta Bizkaiko artisautzaren ikusgaitasuna turismoarekin eta beste merkatu batzuetarako proiektzioarekin lotuta bultzatzea helburu dutenak.

Irizpideok honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 50 puntu.
- 2. irizpidea: 30 puntu.
- 3. irizpidea: 10 puntu.
- 4. irizpidea: 10 puntu.

17. artikulua.— *Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak*

Arlo honetako laguntzen onuradun izan nahi duten enpresek, eskabidearekin batera, agiri hauek bidali beharko dituzte Ekonomia Sustatzeko Sailera:

- Eskabidea bera, dekretu honen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta banku-helbideratzea aldatu nahi bada, Bizkaiko Foru Aldundiak duen informazioa eguneratzeko (hala bada-gokio).
- Ingurumen-ziurtagiria (halakorik bada).
- Genero-berdintasuneko ziurtagiria (halakorik bada).
- Enpresa-erantzukizun sozialeko ziurtagiria (halakorik bada).
- Euskara-sustapenaren arloko ziurtagiria (halakorik bada).

18. artikulua.— *Justifikazioan aurkeztu beharreko agiriak*

Dirulaguntzen onuradunek, izan pertsona zein enpresa, gastua justifikatu beharko dute 2022ko otsailaren 28a baino lehen. Horretarako, dekretu honen 54. artikuluan ezarrita dagoen legez, agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Justifikazioaren txostena, webgunean dagoen ereduaren arabera; bertan labur-laburrean deskribatuko da diru-laguntzaren bidez egin den jarduera, eta azalduko da zer garrantzi duen artisautza-enpresarentzat, erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonak bete eta sinatutakoa.
- Egindako gastuen fakturak.
- Fakturen ordainketa-frogagiriak.
- Hala dagokionean, jarduera hasi aurreko komunikazioaren kopia, obrak hasi aurreko komunikazioaren kopia edo, halakorik badago, obra-lizentziaren kopia, alokairu-kontratua, webgunearen helbidea (bi hizkuntza ofizialetan egon beharko da), parte hartutako ikastaroen edo/eta azoken eskuorri eskaneatua eta kanpo-profesionalarekin duen kontratua, egindako azterketa erantsita doala.
- Hala dagokionean, sustapen-jarduketaren memoria, sortutako materiala, eta zabalbundearekin eta sustapenari dagozkion jardueren plana. Horien ordezkari onargarria izango da argazki edo artxibo eskaneatu bat non egiazta baitaiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren logoa txertatuta daukala.
- Beren-beregi aurkezteko eskatzen dena dirulaguntza emateko ebazpenean.



Diruz lagun daitekeen oinarriaren %100 justifikatu beharko da, eta ez soilik Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza gisa emandako zenbatekoa, hala xedatzen baitu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra.

Ekonomia Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari eskatu ahal izango dizkio beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarriak, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta haren jarraipena egin ahal izateko.

III. KAPITULUA

3. ARLOA, ARTISAUTZA- ELKARTEEK BULTZATURIKO JARDUERAK

19. artikulua. — *Helburuak*

Arlo honen bidez, sektorearen posizionamendua eta lehiakortasuna hobetzeko jarduerak sustatzearen alde egiten da, bai eta Bizkaiko artisau-ekoizpenari balioa ematearen alde.

20. artikulua. — *Erakunde onuradunak*

Foru Dekretu honen 3. arloan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoko artisautza-elkartek, nortasun juridiko propioa dutenek, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Bizkaian edukitzea zerga-egoitza eta sozietate-egoitza.
- b) Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea.
- c) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharren ordainketa ere.
- d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duen ezein inguruabarren mende.
- e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.
- f) Ezin izango dira deialdira aurkeztu, ez onuradun izan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten erakundeak.
- g) Orobat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Baldintza hauek bete behar dira laguntza eskatzen den datan. Era berean, dirulaguntza justifikatzen den egunera arte mantendu beharko dira, baldin laguntzaren esleipendun gertatu badira.

21. artikulua. — *Diruz lagun daitekeen egitatea*

Honako hauek diruz lagun daitekeen egitatetzat joko dira:

- a) Artisautza-enpresentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.
- b) Sektorearentzat interesgarritzat jotzen diren artisautza-azokak antolatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan, COVID-19ak sortutako egoerak eskatzen dituen segurtasun eta higiegi baldintza legaletan.
- c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak.
- d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.

Diruz lagun daitezkeen egitate horiek gauzatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena txertatuko da, guztion zeharkako arlo gisa eta



bera bere horretan helburu dela. Hori honela gauzatu ahalko da: parte-hartze paritarioa sustatuz, azoketan eta beste jarduketa batzuetan genero-ikuspegia sartuz, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiliz, eta abar.

22. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

Dirulaguntza jaso dezakeen jardueraren oinarria zenbatesteko, enpresa eskatzaileak aurkeztu duen jardueraren aurrekontuari begiratuko zaio, gastu-kontzeptuen arabera xehakatur.

Zergak diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira dirulaguntzaren onuradunak egiazki ordaintzen dituen. Ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak, berreskuratuak edo konpentsatuak izateko modukoak direnean, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 29.8. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Bereziki, honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen kostutzat:

- a) Artisau-enpresentzako prestakuntza-ikastaroak ematek eratorritako gastuak; bereziki, artisau-produktuak sustatzeko eta saltzeko Internet eta sare sozialak erabiltzeari buruzko ikastaroak eta negozioek digitalizazioan aurrera egiteari buruzkoak (irakasleak, ikastaroa sustatzeko materiala, beharrezko material didaktikoa).

Diruz lagun daitezkeen gastutzat jo daitezkeen, ikastaroek izan behar dute Bizkaiko artisautza-enpresentzat –nahiz eta beste lurralde eta erkidego batzuetako artisauak ere jaso ahalko dute prestakuntza– eta erakunde antolatzaileko kide ez diren langile profesionalekin lankidetzan eginak.

Ikastaroaren gastua txikiagoa izango da Bizkaiko artisautza-enpresentzat beste lurralde edo erkidego batzuetatik etorritako artisautzat baino.

- b) Sektorearentzat intereseko diren artisautza-azokak Bizkaian antolatzeak eragindako gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat jo daitezkeen, 2 egun iraun beharko dute gutxienez. Gainera, Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan azaltzen diren artisautza-enpresa guztiei helarazi beharko zaie azokan parte hartzeari buruzko informazioa, posta elektronikoz, aukeran beste jakinarazpen-bide batzuk ere erabilita.

Horrez gain, egiaztatu beharko da parte hartzen duten artisauen % 50etik gora bizkaitarrak direla, salbu eta azokan parte hartzeko eskaera egiten duten artisau bizkaitarren kopurua ez bada ehuneko horretara heltzen; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da inguruabar hori.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden artisautza-enpresek azoketan aurkeztu behar dituzte jarduerari dagozkion produktuak.

Bizkaiko artisautzat, standaren kostuak txikiagoa izan beharko du beste lurralde edo erkidego batzuetatik etorritako artisautzat baino.

Era berean, enpresa parte-hartzaile guztiek, azoka egiten den egunean, alta emanda egon beharko dute nork bere erregistroan eta ziurtagiri bidez frogatu beharko dute erregistro horietan daudela. Hala ere, enpresa parte-hartzaileak jarduera gauzatzen duen lekuan erregistrorik ez badago, egiaztatu beharko du data horretan alta emanda dagoela Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafean.

Artisautzako produktuen elaborazioan ezagutza erakusten duten bizkaitarrek azokan parte hartu ahal izango dute baldin eta, Bizkaiko Artisauen Erregistroan alta emanda egon ez arren, galtzeko arriskuan diren artisautza-ofizioetako bat praktikatzen badute eta azokan parte hartuko duten denboraren zati bat ofizio hori erakusteko erabiltzen badute.

Halere, honako arau hauetan artisautza-ofiziotzat jotzen ez diren ofizioei dago-kien gutzizko parte-hartzearen %15etik beherako parte-hartzea onartuko da:



3564/2014 Foru Agindua, zeinak garatzen baitu Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroa arautzen duen uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretua, eta gerora hauek aldatzen edo ordeztzen dituzten xedapenak.

Erakunde eskatzaileak ziurtatu beharko du Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden Bizkaiko artisautza-enpresak, azokara doazenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jartzen dutela beren standeko leku ageri batean.

- c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jardueren gastuak.

Atal honetan sartzen dira Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduerak eragindako gastuak, bai eta Bizkaian artisautza sustatzeko beste erakunde batzuekin batera gauzatutako proiektuek eragindako gastuak ere, baldin eta artisautzaren bideragarritasuna aztertzeke, artisautza merkaturatzeko edota artisautza balorizatzeko badira.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezten, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eduki beharko dute.

Gainera, kontuan hartuko da, nahitaez, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua.

- d) Artisauen elkarteek sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egindako gastuak, bai eta COVID-19 gaitzak eragindako egoeran jarduerak eta enplegua mantentzeko aholkularitza- eta laguntza-gastuak ere.

Ez dira diruz lagun daitekeen gastutzat joko Dekretu honetako beste edozein kontzepturengatik banakako dirulaguntza jaso lezaketen jarduerak, hala nola prestakuntza-jarduerak, ibilgetuak eskuratzea, ekipamendua...

Artisautza-azoken edo Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jardueren arloan emandako sariei dagokienez, dirulaguntzak jasotzeko aukera izateko, atxikipena aplikatuta eduki beharko da, aintzat harturik apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, eta abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Sozietateen gaineko Zergaren Araudia.

Kasu guztietan, aski den adina justifikatu beharko da jarduketak, eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren aburuz beharrezkoa eta koherentea izango da aurkeztutako proiektuaren garapenarekin.

Honako hauek ez dira joko diruz lagun daitekeen gastutzat:

- Eskatzailearekin lotutako beste pertsonen bidez egindako gastuak.
- Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin inolako dudarik gabe identifikatu ezin diren gastuak eta/edo deialdian ezarritako epean gauzatzen ez direnak.
- Ospakizunek, oturuntzek edo sustapen-jaiak eragindako gastuak.
- Elkarte edo toki-erakundearen barneko zein kanpoko pertsonaleko gastuak, proiektuan onartutako kanpo-gastuaren %20 gaindituz gero.
- Erakunde eskatzaileen telefonia-gastuak edo ohiko funtzionamenduari dagozkion beste hornidura batzuen gastuak.

23. artikulua.— Proiektuak egiteko epeak

Erakunde eskatzaileek Dekretu honen 3. arloaren babesean gauzatutako jarduerak 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 31ra bitartean egin beharko dira, biak barne.

24. artikulua.— Laguntzen zenbatekoa

Erakunde eskatzaileek Dekretu honen 3. arloaren babesean egindako eskaerei dagozkien dirulaguntzak zehazteko, kontuan hartu beharko dira artikulua honetan ezartzen diren gehieneko dirulaguntza-portzentajeak eta gehieneko muga absolutuak.



Jarduketa / Actuación	Dirulaguntzaren gehieneko %a % máximo de subvención	Gehieneko erabateko diru-laguntza (eurotan) Subvención máxima por hecho subvencionable (€)
a) Artisautza-enpresentzako trebakuntza-jarduerak: Gastua, antolatutako ikastaro bakoitzeko Actividades de formación, dirigidas a empresas artesanas: Gasto por curso organizado.	75	20.000
b) Bizkaiko Lurralde Historikoan sektorearentzat interesgarritzat jotako artisautza-azokak antolatzea Organización en el Territorio Histórico de Bizkaia de ferias de artesanía, consideradas de interés para el sector.		
Azoka antolatzeakostua, 7 eguneko edo gutxiagokoa bada Coste de organización de feria con duración inferior o igual a 7 días	50	35.000
Azoka antolatzeakostua, 7 egun baino gehiagokoa bada Coste de organización de feria con duración superior a 7 días.		45.000
c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzea: Bizkaiko artisautza sustatu eta ezagutzera emateko gastuak Difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia: Gastos para la promoción y difusión de la artesanía de Bizkaia	75	25.000
d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak: Artisautza-sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jardueren kostua Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector: Coste de actuaciones para la mejora de la gestión y la competitividad del sector artesanal	50	15.000

25. artikulua.— Balorazio-irizpideak

3. arloari dagozkion dirulaguntzak balorazio onena lortzen duten eskabideei emango zaizkie, onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu duten erakunde eskatzaileek aurkeztutako eskabide guztiak kontuan hartuta, irizpide hauen arabera:

1. Artisautza-sektorearen sustapena hobetzea: Irizpide hau ebaluatzeke, kontuan hartuko dira artisautza bultzatzeko, ezagutzera emateko, sustatzeko eta balorizatzeke egon litezkeen jarduketak eta Bizkaiko artisautza-jarduera sustatzeko eta kanpora proiektatzeko erakundeen artean egin litezkeen lankidetzaproiektuak.
2. Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna: Irizpide hau ebaluatzeke, aintzat hartuko da ea aurretiazko azterketarik egin den jardueraren egokitasunari eta bideragarritasunari buruz, edota aurretiko jarduketarik gauzatu den jardueraren beraren barruan ibilbide bat osatzen duenik edo, aurreko urteekin alderatuta, sektorearen beharrezane hobeto erantzutea ahalbidetzen duten hobekuntzak eta ikasbideak dakartzanik, lehiakortasunean eta proposamenak artisautza-enpresentzat duen onarpen-mailan eraginez.
3. Ekimenaren berritasuna: Irizpide hau ebaluatzeke, kontuan hartuko dira, besteak beste, sektorerako proposatutako berrikuntzak, proiektu estrategikoen sustapena, egindako proposamenen berrikuntza eta sormen-maila, eta aurreko urteekin alderatuta proiektuan txertatu diren proposamen desberdinak.
4. Diruz lagun daitekeen jardueraren eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuen arteko koherentzia: Irizpide hau ebaluatzeke, kontuan hartuko da proposamenak Ekonomia Sustatzeko Sailaren ardatz estrategikoekin bat etortzea, artisautza-enpresa berriak sustatzea, artisautza-bokazio gazteak txertatzea, etengabeeko prestakuntza eskaintzea, artisautza-sektoreari kanpora begira zein industria turistikoaren barruan bultzada ematea, berrikuntza eta diseinua sustatzea, sorkuntzaren inguruko beste arlo batzuekiko lankidetzak, Bizkaiko artisautzaren alde urtean egiten diren jarduketan kopurua, eta abar.
5. Erakundearen konpromisoa ingurumenarekin, berdintasunaren sustapenarekin eta euskararen erabilerarekin: Irizpide hau ebaluatzeke, aintzat hartuko dira erakunde eskatzaileak aurkeztu dituen jadaneko ingurumen-ziurtagiriak, emakumezkoentzako postuen ehunekoa, presentzia paritarioaren bultzada, bai eta



honako hauekin lotuta emandako aitorpenak eta/edo diplomak ere: emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea, jardueretan euskara sustatzea eta erantzukizun sozialeko-irizpideak betetzea.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 30 puntu.
- 2. irizpidea: 10 puntu.
- 3. irizpidea: 30 puntu.
- 4. irizpidea: 25 puntu.
- 5. irizpidea: 5 puntu.

26. artikulua. — *Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak*

Arlo honetako laguntzen onuradun izan nahi duten erakundeek, eskaera egiteko unean, dokumentazio hau bidali beharko dute Ekonomia Sustatzeko Sailera:

- Eskabidea bera, dekretu honen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Proposatutako jarduerari buruzko memoria, web-orrian eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulegoetan eskuragarri dauden ereduaren arabera, erakunde eskatzailaren legezko ordezkariak aski den adinako ahalmenaz betea eta sinatua.
- Azokei dagokienez, Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroko enpresen zerrenda, eta azoka egiteari buruzko informazioa enpresa horiei eman izanaren jasotza agiriak; eskatzaileen eta onartutako eta baztertutako zerrenda, behar bezala arrazoitua (zerrenda eginda ez badago eskabidea egiteko epea ixten den egunean, egiten den bezain laster aurkeztuko da).
- BEZa sartuta fakturatutako kanpo-gastuen kasuan, non erakundeak ezin duen BEZ horren zenbatekoa berreskuratu ez konpentsatu, zinpeko adierazpena, web-bean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
- Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, baldin eta banku-helbideratzea aldatu nahi bada, Bizkaiko Foru Aldundiak duen informazioa eguneratzeko (hala badagokio).
- Ingurumeneko ziurtagiria (halakorik bada).
- Genero-berdintasuneko ziurtagiria (halakorik bada).
- Enpresa-erantzukizun sozialeko ziurtagiria (halakorik bada).
- Euskara-sustapenaren arloko ziurtagiria (halakorik bada).

27. artikulua. — *Justifikazioan aurkeztu beharreko agiriak*

Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek 2022ko otsailaren 28a baino lehen justifikatu beharko dute gastua. Horretarako, agiri hauek aurkeztuko dituzte Dekretu honen 54. artikuluan ezarritako eran:

- Justifikazio-memoria, erakunde eskatzailearen ordezkariak aski den adinako ahalmenaz betea eta izenpetua. Webean eskuragarri dagoen ereduaren arabera bete beharreko memorian, aurreikusitako helburu bakoitzeko gauzatutako jarduerak eta ekintzak deskribatuko dira eta hauetako bakoitzaren gauzatze-epeak eta gauzatzaileak zehaztuko dira. Bertan, xeheki zerrendatuko dira diruz lagundutako egitate bera finantzatu duten beste diru-sarrera batzuk.
- Egindako gastuen fakturak.
- Fakturen ordainketa-frogagiriak.
- Gizarte Segurantzaren LIZ (Langileen Izenen Zerrenda) agiria, 10T zerga-agiria (halakorik ezean, kontratuaren eta nominen kopia) eta enpresaren legezko ordezkari gisa diharduen pertsonak sinatutako ziurtagiria, zeinean zehaztuko baitira proiektuari egotz dakizkiokeen pertsonaleko zuzeneko gastuak eta zehaztuko baitira prozesuarekin zerikusia duen pertsona bakoitzaren arduraldiko lanordu kopurua eta orduko kostua.



- Hala dagokionean, ikastaro-programaren kopia, onartutako eta baztertutako eskatzaileen dokumentazioa eta zerrenda arrazoitua, eta jarduketaren memoria deskriptiboa.
- Hala dagokionean, onartutako eta baztertutako enpresa eskatzaileen zerrenda arrazoitua eta azokan parte hartu arren Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan sartuta ez daudenen erregistro-ziurtagiria, promozio-materiala, azokaren memoria deskriptiboa: jarduerak, gauzatutako lantegiak, promozio-ekintzak, argazkiak, programa...
- Hala dagokionean, sustapen-jardueraren memoria, sortutako materiala, eta zabal-kundeari eta sustapenari dagozkien jardueren plana.
- Hala dagokionean, egindako azterlanak eta jardueraren txostena.
- Beren-beregi aurkezteko eskatu dena dirulaguntza emateko ebazpenean.

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez soilik Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zenbatekoa, hala xedatzen baitu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra.

Ekonomia Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari eskatu ahal izango dizkio beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarriak, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta haren jarraipena egin ahal izateko.

III. TITULUA

DIRU- LAGUNTZENTZAKO XEDAPEN KOMUNAK

28. artikulua. — *Diruz lagun daitekeen gastutzat jotzeko irizpide orokorrak*

Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, baldin eta epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

Edonola ere, gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

- Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdian ezarritako epean egiten ez direnak.
- Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Lotura dagoela ulertuko da Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42.-49. artikuluek ezarritako kasuetan.

29. artikulua. — *Gastuen doikuntza*

Ekonomia Sustatzeko Sailak irizten badu gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela izaera bereko gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, murriztu ahal du diruz lagun daitekeen oinarria, gastu doi eta neurrikotzat jotzen denari dagokion zenbatekoan. Halakoetan, murrizketa hori zergatik egiten duen jakinaraziko dio erakunde onuradunari.

30. artikulua. — *Dirulaguntzak metatzea*

Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzek bete beharko dute Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa, zeinak arautzen baitu Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeko era (2013ko abenduaren 24ko «Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala» 352. zk.). Ondorioz, arau hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako de minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

**31. artikulua.—*Dirulaguntzen bateragarritasuna***

Dekretu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste organismo publiko edo pribatu batzuek eman dezaketen beste edozein laguntzarekin. Halere, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa inola ere ezin da izan, bera bakarrik edo beste batzuei batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Nolanahi ere, dirulaguntzen erakunde onuradunek Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote beste dirulaguntzarik jaso duten, kontuan hartu barik zein egunetan ematen den. Horrek guztiak hala behar du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 18.4 artikuluetan ezarritako ondorioetarako. Era horretan, beraz, posible izango da dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eta, hala badagokio, dirua itzultzeko prozedura hastea.

Ekonomia Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahalko da beste alderdi finantzatzailerekin, baterako finantzaketa adosteko.

32. artikulua.—*Laguntza publiko egitea*

Dekretu honen babesean ematen diren dirulaguntzen onuradun gertatzen diren pertsonak publiko egin beharko dute jaso duten laguntza, jasotako laguntza hori aipatuz eta material, argitalpen edo ekitaldi guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa ezarritik, ageriko leku batean, lagundutako jarduketak ezagutzera emateko.

Jasotako laguntzaren aipamen guztiak, edozein delarik ere euskarria, hizkuntza ofizial bietan egin behar dira.

33. artikulua.—*Erakunde laguntzailea*

Ekonomia Sustatzeko Sailak berari atxikitako foru-sozietate publiko batzuen laguntza du bere helburuak lortzeko. BEAZ, S.A.U., da sozietate horietako bat, eta laguntzen programan esku hartuko du erakunde laguntzaile gisa. Aurreko guztia hala da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Beaz, S.A.U.-ren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren arabera, zeinaren xedea baita sozietateak erakunde laguntzaile gisa jardutea Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako dirulaguntzei buruzko zenbait Foru Dekretutan.

BEAZ, S.A.U., erakunde laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren izenean eta kontura jardungo du; sail hori izango da, ondorio guztietarako, dekretu honetan ezarritako laguntzen emalea.

34. artikulua.—*Gardentasuna*

1. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

2. Kontratu edo emakida bidez edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste edozein formularen bidez zerbitzu publikoak ematen dituen edo lurralde historikoaren eskumeneko administrazioaren ahalak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko behartuta dago Administrazioako organo eskudunari titulu honetan ezarritako betebeharrak benetan betetzeko behar duen informazioa guztia ematera, aurretik errekerimendua egin bazaio. Betebehar hori sektore publikoko kontratuen adjudikaziodunei ere ezarriko zaie, kontratu bakoitzean ezarritakoa kontuan hartuta. Horretarako, kontratu horien pleguetan inguruabar horiek jaso beharko dira.

35 artikulua.—*Erakunde onuradunen betebeharrak*

1. Foru Dekretu honetan dirulaguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharrak gainera, laguntzak jasotzen dituzten onuradunek Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere bete beharko dituzte, hala nola:



- a) Dirulaguntza ematea funtsatzen duen jarduera egitea edo horretarako jokabidea hartzea.
- b) Dirulaguntza ematea edo hura lortzea funtsatzen duen jarduera egin dela edo hura egiteko jokabidea hartu dela justifikatzea, bai eta laguntza ematea funtsatu duten baldintzak betetzen direla ere justifikatzea.
- c) Dirulaguntza eman duen erakundeak egin beharreko egiaztapen-jardueren mende jartzea, hala badagokio, bai eta Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza-kontrolaren mende ere, emandako dirulaguntza eta laguntzei dagokienez, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-prozeduren mende.
- d) Edozein administrazio edo erakunde publikok, nazionala izan zein nazioartekoa, xede bererako dirulaguntza edo laguntzaren bat emanez gero, horren berri dirulaguntza hori eman duen erakundeari ematea.
- e) Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta halaber izatea dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak, horrela, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
- f) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak (are dokumentu elektronikoak ere) gordeta izatea, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen bitartean, arloan aplikatu beharreko araudiak horretarako zehazten duen epean zehar. Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan kontabilitateko azken idazpena egin eta hurrengo 6 urteetan zehar gorde beharko dira agiriok.
- g) Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea. Ezingo du onuradun izan lehenago jasotako beste dirulaguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak. Dirulaguntza ez da ordainduko, harik eta pertsona onuradunak behar bezala egiaztatu arte egunean dituela zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak. Horrenbestez, galdu egingo du ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta 31. eta 32. oinarrietan baldintzak ez betetzeagatik xedatzen den prozedura abiaraziko da.
- 2. Eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio Ekonomia Sustatzeko Sailari, zuzenean eta telematikoki eskura ditzan inguruabarrok egiaztatzeko agiriak.
- 3. Era berean, erakunde onuradunak honako betebeharrak bete behar ditu:
 - a) Publizitate aktiboko arauak aplikatzea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
 - b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan adierazitakoak, helburu hauek dituztenak: berdintasuna sustatzea, tratamendu baliokidea zaintzea, berdintasun plan bat eduki beharra eta lan-eremuan indarkeria matxista desagerraraztea.
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua aplikatze-tik eratorritakoak: diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku hartze publiko guztietan euskara erabiltzea, eta bi hizkuntza ofizialak erabiltzea liburuxketan, karteletan edo bere jardueraren publizitatea herritarrei emateko erabiltzen den beste edozein euskarritan.

**IV. TITULUA****DIRU- LAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURAK****36. artikulua.—Eskabideak aurkeztea**

1. Pertsona fisikoen kasuan (1. eta 2. arloa), ahal dela, Internet bidez aurkeztu behar da eskabidea, atal guztiak behar bezala beteta, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion ataleko web-orrian www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala). Dena dela, Zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere balia daiteke eskabidea aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikuluekin bat etorritik.

2. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek (1. eta 2. arloak) eta elkarteek (3. arloa) kasuan, eskabidea, bere atal guztietan behar bezala beteta, Internetez aurkeztu beharko da, nahitaez, Ekonomia Sustatzeko Sailaren web-orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala), aintzat harturik 14.2 artikuluan ezartzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.

Eskabidea aurkezteko baldintza gisa, erakundeak alta emanda egon beharko du Ekonomia Sustatzeko Saileko Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan (uztailaren 24ko 107/2018 Foru Dekretua edo gerora hau aldatzen edo ordeztzen duten xedapekak). Egoera horretan ez badago, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen inskripzio-eskabidea bete beharko du erakundeak.

1. arloko eskatzaileek eskabide bat aurkeztu behar dute arlo horretako jarduketa guztiengatik.

2. arloko eskatzaileek eskabide bat aurkeztu behar dute dirulaguntzaren xede diren jarduketa guztietarako.

Eskabide bana aurkez daiteke 1. arloan eta 2. arloan deialdi berean.

Elkarteek (3. arloa) aurkeztu beharko dituzte hainbeste eskabide nola egokitzen diren irizpide hauek aplikatuzetik:

- Eskabide bat artisautza-enpresentzako prestakuntza-jarduera bakoitzeko.
- Eskabide bat antolatuko duten artisautzako azoka bakoitzeko.
- Eskabide bat Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduera guztietarako.
- Eskabide bat sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egiten diren jarduera guztientzat.

Aurrekoaren arabera, eskabideak bide telematikoz aurkeztu behar direnez, interesdunek aldeztu aurretik izan beharko dute sinadura elektronikoa (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...), alta emanda egon beharko dute Bizkaibai zerbitzuan edota sartu beharko dira B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabilita (gure bulegoetan eskatu ahalik dute: Orueta apezpikuaren kalea 6, Bilbo), kontuan izanik zer ezartzen duen apirilaren 19ko 3037/2011 Foru Aginduak, zeinak arautzen baitu Ekonomia Sustatzeko Sailarekiko harremanetan bide telematikoak erabiltzeko prozedura. Alta-prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web-orrian.

Nolanahi ere, instrukzio-organismoak egoki deritzon eran taldekatu edo xehekatu ahalik ditu elkarrekin zerikusia duten eskabideak, behar bezala aztertu eta ebalua daitezkeen eta zehaztuta gera dadin diruz lagun daitezkeen zein egitate egokitzen den ondoen dirulaguntzaren xede den jarduerara.

Eskatzaileak, dirulaguntza-eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio instrukzio-organismoari zuzenean lortu ahal izan dezan 3., 11. eta 20. artikuluek aipatutako inguruabarraren egiaztapena; ziurtagiri telematiko egokiaren bidez egin ahal izango da hori, betiere bat etorritik martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Erregelamenduaren 17.1. artikuluan xedatutakoarekin.



Eskabideekin batera jarduketa-arlo bakoitzean ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; horretarako, ahal dela, gorago aipatutako atari birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

37. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da; epe hori zenbatuko da Foru Dekretu honen deialdia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

38. artikulua. — Laguntzak emateko prozedura instruitu eta ebazteko eskumena duten organoak

Instrukzio-organoak izapidetuko ditu dirulaguntza-eskabideak, eta esanbidezko ebazpen bidez ebatziko ditu Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularrak, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak proposatua.

Instrukzio-organoak egiaztatuko du ea betetzen diren pertsona edo erakunde onuradun izateko arlo bakoitzean ezarritako baldintzak.

Bigarren eta hirugarren arloetan, Ekonomia Sustatzeko Sailari eta BEAZ, S.A.U., erakundeari atxikitako lau langilek osatutako ebaluazio-batzorde batek, Eskualde Garapenerako Zerbitzuko burua batzordeburu dela, ebaluazio-irizpideak aplikatuko ditu eta dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskabideen zerrenda bat egingo du, non eskabideak sailkatuko baitira lortu duten puntuazio-hurrenkeraren arabera; halaber, ezes-teko proposatzen diren eskabideen zerrenda egingo du, ezespenaren kausa adierazita.

Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularrari igorriko dio, hala dagokionean, ebazpen-proposamena, eta honek emango du ebazpena dagokion foru-aginduen bidez.

Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, instruitu eta ebazteko eskumena duten organoak osatzeko orduan, kontuan hartuko da bi sexuen ordezkaritza orekatua egon behar dela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkaturik egon beharko dutela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz.

39. artikulua. — Laguntzak emateko prozedura

Lehen arloan araututako dirulaguntzak konkurrentzia libreko araubidez emango dira; araubide hori 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusten da.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluekin bat, konkurrentzia libre deritzon prozeduran, eskaerak jaso ahala banatzen dira diru-funtsak, kontuan harturik Bizkaiko Foru Aldundiaren bulego birtualeko sarrera-erregistroan eskabideek duten lehen-tasun-hurrenkera, bai eta zuzen eta baliozko eran erantsi den beharrezko dokumentazio guztia, deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira eta aurrekontu-zuzkidurek ahalbidetzen duten bitartean.

Dekretu honen 2. eta 3. arloetan jasotako dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez emango dira, hautatze-prozedura bakar baten bidez.

Dekretu honen ondorioetarako, norgehiagoka deritzon prozeduran, dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideen alderaketa egiten da, eta haien arteko hurrenkera bat ezartzen da jarduketa-arloetako bakoitzean —2.ean edo 3.ean— ezarri diren balorazio-irizpideen arabera. Horrela, erabilgarri dagoen kredituaren barruan, baloraziorik handiena lortu duten eskabideei esleituko zaie dirulaguntza.

Hala ere, eskatutako betekizunak betetzen dituzten eskaeren arteko lehen-tasun-hurrenkera ezarri beharra salbuetsi ahal izango da baldin eta deialdian izendatutako kreditua nahikoa bada, eskabideak aurkezteko epea amaituta aurkeztu diren eskaeren kopurua kontuan hartuta.

**40. artikulua.—Txostenaren instrukzioa**

Eskabideen espedienteak honela izapidetuko dira:

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo deialdian ezarritako agiriak ez badauzkate erantsita, instrukzio-organoak erakunde eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzendu dezala edo behar diren agiriak aurkez ditzala hamar (10) egun baliodunetako epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta ohartaraziko dio ezen hori egiten ez badu eskaeran atzera egindakotzat joko dela berariaz emango den ebazpen baten bidez, kontuan harturik 68. artikuluan xedatzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.
2. Instrukzio-organoak egiaztatuko du pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

Nolanahi ere, instrukzio-organoak erakunde eskatzaileei eskatu ahal izango die zernahi ere dokumentazio eta/edo informazio osagarri beharrezkotzat jotzen baitu aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

41. artikulua.—Eskabideen ebaluazioa

1. Eskabideak ebaluatuko dituen instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango bertan onuradun gisa ageri diren pertsonen edo erakundeen.
2. Dekretu honetan jasotzen diren arloetako bakoitzean ezartzen dira dirulaguntzen eskabideak ebaluatzeko irizpideak, 1. arloan izan ezik, arlo horretan ez baita esandakoa aplikatzen konkurrentzia libre delako.

42. artikulua.—Ebazpen-proposamena

1. Ebaluazioa egin ondoren, Ekonomia Sustatzeko Sailak egiaztatuko du, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari aurrez galdetuta, ea erakunde eskatzaileak egunean dauzkan Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Halaber, erakunde eskatzailearen zerga-egoeraren ziurtagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.
2. Behin egiaztatuta, instrukzio-organoak ebazpen proposamena igorriko dio Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari.

43. artikulua.—Aurrekontuen muga

Aurkeztutako eskabideetatik hainbeste hautatu ahal izango dira nola permititzen dituzten hartarako ezarritako partidetan kontsignatutako aurrekontu-baliakizunek, eta ez gehiagorik.

44. artikulua.—Ebazteko epea

1. Foru Dekretu honen babesean aurkeztu diren eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdi honen eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unetik zenbatuta.
2. Ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpen espresua eman behar du aurkeztutako eskabide guztietan; nolanahi ere, ez bada ebazpen espresurik eman behin ebazpena eta jakinarazpena emateko epea igarota, ulertuko da eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 23.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

45. artikulua.—Ebazpena

1. Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak ebazpen-proposamena igorriko dio Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuari, eta honek ebazteko du foru-agindu baten bidez.
2. Bigarren eta hirugarren arloen ebazpenean, onartutako eta ukatutako laguntzak jasoko dira. Horrez gain, zerrenda batean bilduko dira erakunde onuradun izateko Foru Dekretu honetan ezarri diren baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituzten baina deialdiari dagokion kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ezin



izan diren eskabideak. Aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera adieraziko da eskabide bakoitzari esleitutako puntuen kopurua.

3. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, aintzat harturik 40., 41., 42. eta 43. artikuluetan ezartzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.

4. Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, pertsona edo erakunde onuradunak hamar (10) egun balioduneko epea izango du baiezkota emateko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaituta ez bada adierazpen espresurik egin, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

5. Era berean, ebazpenaren laburpena argitaratuko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean».

46. artikulua. — Errekurtsoak

1. Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukurako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Ekonomia Sustatzeko Saileko titularraren aurrean, hilabeteko (1) epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, 39/2015 Legeak ezarritako terminoetan, salbu eta beste epe bat aplikagarri bazaio kasuari, alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz hartutako neurri arauemailetan adierazitakoaren arabera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako eran, salbu eta beste epe bat aplikagarri bazaio kasuari, alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz hartutako neurri arauemailetan adierazitakoaren arabera.

3. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

47 artikulua. — Dirulaguntzari uko egitea

1. Bigarren edo hirugarren arloko laguntzen onuradunetako batek, izan pertsona zein erakunde, uko eginez gero dirulaguntzari, organo emaileak erabaki ahalko du dirulaguntza ematea zerrendan –puntu hurrenkerari jarraikiz– hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei, baldin eta behar beste krediturik badago eskabide horietarako.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera hori jakinaraziko die interesdunei, dirulaguntza-proposamena onar dezaten hamar eguneko epe luzaezinean. Pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartutakoan, administrazio-organok laguntza emateko gintza eman eta jakinarazpena egingo du.

48. artikulua. — Jakinarazpen elektronikoa

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoa erabili beharko ditu, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluen arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.ebizkaia.eus>) egin beharko dira, hala ezartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Elektronikoa buruzko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuan eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduan, zeinak hizpide baitu jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko sistema).

49. artikulua. — Dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntzak zuzenean ordainduko dizkio onuradunari Ekonomia Sustatzeko Sailak. Ordainketa egin aurretik, emandako dirulaguntza onartu behar da, Foru Dekretu honen 45.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Kasu guztietan, aldez aurretik ordainduko dira emandako laguntzak, eta ez da beharrezkoa izango onuradunei bermerik eskatzea. Hori gorabehera, dirulaguntzaren amaierako justifikazioa egin behar da, dekretu honen 54. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**V. TITULUA****DIRU- LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA EGIAZTAPENA****50. artikulua.— Azpikontratazioa**

1. Pertsona edo erakunde onuradun batek azpikontratazioa egin duela ulertuko da beste norbait kontratatzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera zati batean edo osorik egiteko. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da diruz lagundutako jarduera pertsona edo erakunde onuradunak berak bakarrik egiteko dauzkan gastuen kontratazioa. Ondorioz, ez da azpikontrataziotzat joko makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak eskuratzea, dirulaguntzaren xede den jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea eta dirulaguntzaren xede den jardueraren beste gastu osagarri batzuk egitea.

2. Hirugarren arloan, diruz lagundutako jardueren % 85 arte azpikontratatu ahalko da; horretarako, begiratu beharko dira 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak.

3. Dirulaguntzaren xedea gauzatzeko mandatua duten erakundeek, 4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, errespetatu beharko dituzte horietan ezarritako printzipio orokorrak eta 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan jasotako betebeharrak.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera zati batean gauzatzea, baldin eta jarduera horrek dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta, horrez gain, azpikontratazioa 60 000 eurotik gorakoa bada, orduan erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eskatu beharko dio azpikontratazio hori egiteko; horretarako, azpikontratazioaren baldintza nagusiak jakinarazi beharko dizkio, bai eta zein erakunderekin hitzartuko duen jarduera gauzatzea.

5. Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularrak ebazpen baten bidez ebatzi beharko du eskabide hori, hamabost (15) eguneko epean; epe hori amaitutakoan ebazpen espresua eman ez bada, ezetsizat joko da eskabidea.

51. artikulua.— Eskaintzak aukeratzea

1. Diruz lagun daitekeen gastu baten zenbatekoak gainditzen dituenean sektore publikoko kontratuei buruzko jadaneko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopuruak (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira, eta 15.000 eurotik beherakoa, horniketa- edo zerbitzu-kontratuak badira), orduan onuradunak gutxienez hiru pertsona edo erakunde hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan betebeharrak hori zein egoeratan salbuetsita dagoen aurreikusten da.

2. Eskaintzak justifikazioan edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztu behar dira. Eskaintza horien arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta memoria batean espresuki justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki onuragarrienari egokitzen ez zaionean.

52. artikulua.— Jarraipena

1. Foru Dekretu honetan ezartzen diren dirulaguntzen onuradunek, izan pertsona zein erakunde, agiri bidez frogatu beharko dute laguntzen diren jarduerak gauzatu direla, bai eta dirulaguntza jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela ere, Foru Dekretu honetan eta, hala dagokionean, esleipena egiten duen foru-aginduan ezartzen den moduan, eta edozein unetan, hala eskatzen badute Ekonomia Sustatzeko Sailak eta, hala dagokionean, dagokion erakunde laguntzaileak.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia egin ondoren eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa antzeman delarik, horiek ez badute esetsitako interes publikoa lortzea oztopatzen edo eragozten eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.



3. Instrukzio-organoak entzunaldien egutegia ezarri ahal izango du, eskatzaileek aukeran azaldu ahal izan diezazkioten organoari berari Artisautza Sustatzeko Programan aurkeztu dituzten proiektuak.

4. Halaber, Ekonomia Sustatzeko Sailak eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileak eskatu ahal izango dizkiote eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituzten agiri edota informazio osagarri guztiak, aurkeztutako eskabideak ondo ulertu eta ebaluatzeko eta proiektuen garapenari buruzko geroko justifikazioak egiteko.

5. Erakunde onuradunek, halaber, laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen, aldaketak egin ditzala dirulaguntzak emateko ebazpenean, dela ezarritako epeak luzatuz, dela emandako zenbatekoa murriztuz edo dela jardueran txertatutako ekintzak aldatuz. Aldaketak autorizatu ahalko dira aurreikusi ez diren inguruabarrek eragindakoak direnean edo jarduketa ondo egiteko beharrezkoak direnean, baldin ez bada aldatzen dirulaguntzaren xedea edo helburua eta ez badira urratzen hirugarrenen eskubideak. Kasuotan, pertsona edo erakunde onuradunak itzuli beharko ditu, hala badagokio, jasotako diru-kopuru justifikatu gabeak, diruaren legezko interesarekin batera.

6. Epe-luzapena onartzeari edo ukatzeari buruzko erabakien kontra ezingo da errekurtsorik jarri, prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra jar daitekeena gorabehera.

53. artikulua.— Justifikazioa egiteko epea

1. Dirulaguntzak dokumentu bidez justifikatu beharko dira, 2022ko otsailaren 28a horretarako muga izanik.

2. Justifikazioa egiteko epea amaituta hura ez bada aurkeztu instrukzio-organoaren aurrean, honek hamabost (15) eguneko epe luzaezinean aurkezteko eskatuko dio erakunde onuradunari. Ezarritako epean justifikazioa ez aurkezteak dirulaguntza itzultzeko prozedura hastea ekarriko du, bai eta bestelako erantzukizunak ere, hala ezartzen baita maiatzaren 31 5/2005 Foru Arauan, zeinaren bidez arautzen baira Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra.

54. artikulua.— Laguntzak justifikatzeko modua

1. Foru Dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzen erakunde onuradunek justifikatu beharko dute proiektua gauzatu dela, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla eta nola gastatu den diruz lagundutako proiektuaren zenbatekoa, kontuan harturik bere 57. artikuluan adierazten duena Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen Erregelamendua, zeinak garatzen baitu maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra, era honetan:

2. Pertsona fisikoen kasuan (1. eta 2. arloa), ahal dela, Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion ataleko web-orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala). Dena dela, Zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere balia daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikularekin bat etorritz.

3. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen (1. eta 2. arloak) eta elkarten (3. arloa) kasuan, Internetez egin beharko da, nahitaez, Ekonomia Sustatzeko Sailaren web-orrian (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala), aintzat harturik 14.2 artikuluan ezartzen duena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak.

4. Arlo guztietako dirulaguntzaren justifikazioa justifikazio-kontuaren sistemaren bidez egingo da, gastu-frogagiriak aurkeztuta. Sistema hori jasota dago Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan.

**55. artikulua. — Baldintzak aldatzea**

Justifikazioa egitean, erakunde onuradunak aditzera ematen badu aldaketak egon direla dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan, eta aldaketok ebazpena aldatzea eragin ahal izango zuketela, Dekretu honetako 52. artikuluan araututakoari jarraituz, dirulaguntza onartzeko aurretiazko baimen administratiboa gauzatzeko izapidea omititu izanik, orduan dirulaguntza eman duen organoak onartuko du onuradunek aurkeztutako justifikazioa. Horrek ez du erakunde onuraduna salbuetsiko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenak jasotzetik.

VI. TITULUA**DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU- HAUSTE ADMINISTRATIBOAK****56. artikulua. — Erakunde onuradunak bere ekimenez itzultzea dirulaguntza**

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.
2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak berandutze-interesak kalkulatu ditu, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak behin betiko itzulketa egin zuen unera arte.
3. Onuradunak berak eskatuta itzuli nahi badu dirulaguntza, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera ordainketa-gutuna erabili behar da.

57. artikulua. — Dirulaguntzen gutxipena

Diruz lagundutako ekintzak gauzatu direla justifikatzeko ezarritako epeak igarota ekin-tza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla egiaztatu eta justifikatu gabe, eta baldin uste bada laguntzen helburua eta xedea bete direla, dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeari ekingo zaio, egiazki justifikatutako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da, bai eta dirulaguntza emateko orduan ezarritako irizpideak eta mugak ere.

58. artikulua. — Ez-betetzeak

Ez badira betetzen Foru Dekretu honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako beharkizunak eta, hala dagokionean, ebazpenean ezartzen diren baldintzak, orduan itzuli beharko dira jasotako diru-kopuruak eta, bidezkoa bada, haiei dagozkien legezko interesak, aintzat harturik bere II. eta IV. tituluetan xedatzen duena maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra. Horrek ez du eragotziko, halere, bidezkoak diren legezko ekintzen eta zigorren aplikazioa. Aipatutako kopuruek diru-sarrerara publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

59. artikulua. — Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak

Ez-betetzea honako hauen arabera mailaka daiteke:

- a) Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeagatik gainfinantzaketa gertatuz gero — maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan aurreikusia —, jasotako kopuru gehiegia itzuliko da, dagokion berandutze-interesa aplikatuta.
- b) Baldintzak partzialki betetzen badira edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiten bada, dirulaguntzaren parte bat bakarrik ordainduko da edo, bestela, dirulaguntzaren parte bat itzuli beharko da. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik gauzatutako proportzioa aplikatuko da.
- c) Egindako gastu guztiak edo batzuk ordaindu gabe gelditzen badira dirulaguntza kobratu eta gero, dirulaguntza itzuli beharko da diruz lagun daitezkeen gastu egotzi guztietatik ordaindu ez den proportzioan.
- d) Dirulaguntza bat ematen denean gastu-aurrekontu bat erreferentziazat hartuta, justifikatutako gastu egozgarria aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada.
- e) Uneren batean, dirulaguntza ematen denetik justifikazioa aurkezteko epearen azken egunera arte, artisau onuradunaren baja ebazten bada Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan.

**60. artikulua.—Zehapen-prozedura**

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa aplikatu beharko da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da 39/2015 Legean ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarren otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatzen dena, aurreko manuari kontra egiten ez badio.

XEDAPEN IRAGANKORRAK**Xedapen iragankorrek Lehenengoa.—Jakinarazpen elektronikoa**

Jakinarazpen elektronikoari buruzko betebeharrari dagokionez (48. artikuluan ezarria), baldin eta jakinarazpena egiteko unean jakinarazpena bitarteko elektronikoz egiteko prozedura ez balego teknikoki burututa, paperezko euskarrian egingo da jakinarazpena, posta-bidalketa ziurtatu baten bidez.

Xedapen iragankorrek Bigarrena.—Esleitzeko arautegia

Arautegi honetan zehaztutako eremu materialean sartzen diren dirulaguntzak, baldin aurreko arautegi baten arabera emanak badira, haiek eman zituen arautegian xedatutakoari jarraituz gobernatuko dira, iraungi daitezen arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru Dekretu hau indarrean jarritakoan, indarrik gabe geratuko dira Foru Dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK**Azken Xedapenak Lehenengoa.—Aplikatzekoa den arautegi orokorra**

1. Dirulaguntzek jarraibide hartuko dute zer ere xedatzen baita dekretu honetan eta laguntzak emateko foru-aginduetan, bai halaber maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra, Dirulaguntzen Erregelamenduan, zeina onartu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuan, zeinak aldatzen baitu Dirulaguntzen Erregelamendua, eta bai Estatuko edo Europako Erkidegoko arau aplikagarrietan ere.

2. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikagarri izango zaie aurrekontu-ekitaldi batean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuei edota urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik jasotzen dutenei, baldin eta gutxienez 5.000 eurora heltzen badira.

3. Aplikagarri izango da zer ezartzen baitute, batetik, otsailaren 17koa 1/2016 Foru Arauak Bizkaiko Gardentasunari buruzkoak, eta, bestetik, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak, enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzkoak. Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez adieraziko da noiz ez diren konpromiso horiek bete, eta horrenbestez itzuli beharko da dirulaguntza, aipatutako foru-arauan ezarritako prozedura ezarrita.

4. Era berean izango da aplikatzekoa 63/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituena.

5. Interesdunak ematen dituen datuak Foru Dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB), zeinak hizpide baitu pertsona fisikoen babesa datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askiari dagokienez, eta zeinaren bidez indargabetzen baita 95/46/CE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu



pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoan. Datu horiek ez dira inola ere tratatuko, eta ez zaizkie hirugarren parteei lagako, salbu eta ukitutako pertsonak dudarik gabeko kontsentimendua ematen badu, edota goian aipatutako araudian aurreikusitako kasuetan. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak, bere datuei dagokienez, eskubide hauek baliatu ahaliko ditu tratamenduaren arduradunaren aurrean: atzipena, zuzenketa, ezabaketa («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendu-mugaketa eta eramangarritasuna; halaber, bere eskubidea izango da tratamendu automatizatuan soilik (profilen sorrera barne) oinarritutako erabaki baten xede ez izatea, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo nabarmenki eragiten badio era bertsuan. Horrez gain, une oro erreboka dezake kontsentimendua. Bere eskubidea da, orobat, Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkeztea.

6. Administrazio prozedurari dagokionez, dekretu honetan ezarri ez den guztirako, osagarri moduan aplikatuko da urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, edo, bestela, zuzenbide pribatuko arauak.

Azken Xedapenak Bigarrena. — Arauen garapena

1. Ekonomia Sustatzeko diputatuak ahalmena izango du Foru Dekretu hau garatzeko, gauzatzeko eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.
2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularrari ahalmena ematen zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada, foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatzeko.

Azken Xedapenak Hirugarrena. — Aurrekontuko zuzkidura

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzek eta onurek 360.000 euro izango dute zenbateko osoa, eta kopuru hori ordainduko da ondoren zehaztuko diren aurrekontu-partiden, aurrekontu-proiektuen eta urte-sarien kontura, kopuru hauetan xehakatuta:

1. arloa: COVID-19aren krisiaren ondoren artisau-enpresei laguntzeko neurriak

- Ekitaldia 2021.
Proiektua: 2007/0109.
Partida: 08.09/443.00/433121.
Zenbatekoa: 140.000 euro.
- Ekitaldia 2021.
Proiektua: 2007/0109.
Partida: 08.09/449.00/433121.
Zenbatekoa: 6.000 euro.

2. arloa: artisautza-enpresen jarduketak

- Ekitaldia 2021.
Proiektua: 2007/0109.
Partida: 08.09/443.00/433121.
Zenbatekoa: 69.000 euro.
- Ekitaldia 2021.
Proiektua: 2007/0109.
Partida: 08.09/449.00/433121.
Zenbatekoa: 14.000 euro.
- Ekitaldia: 2021.
Proiektua: 2007/0109.
Partida: 08.09/743.00/433121.
Zenbatekoa: 60.000 euro.



- Ekitaldia: 2021.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.09/749.00/433121.
- Zenbatekoa: 1.000 euro.

3. arloa: toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzaturiko jarduketak

- Ekitaldia: 2021.
- Proiektua: 2007/0109.
- Partida: 08.09/451.00/433121.
- Zenbatekoa: 70.000 euro.

2. Aurrekontuko partidari esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onesten diren eskabideen arabera, eta onuradunen izaera juridikoa desberdina dela kontuan hartuta, aurrekontuetako partidei esleitutako baliabide ekonomikoak aurrekontuko kapitulu bereko partiden artean berregokitu ahal izango dira, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Foru Dekretu hau aldatzea.

3. Horrez gain, eskabide guztiak ebatzi ondoren ez bada iristen gehieneko aurrekontu-mugara, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Foru Dekretu hau aldatzea.

4. Jarraibide harturik 43. artikuluan ezartzen duena martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoa gehiagotu ahal izango da, gehienez 100.000,00 euro gehituta, baldin eta eskuragarri dauden kredituak emendatu badira, dela kreditua gehiagotzea onartu delako, dela kreditua sortu edo gehitu delako; kasu horietan, kredituaren erabilgarritasuna deklaratzeko bada soilik izango da zenbateko osagarria efektiboa. Deklarazio hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da, eta organo eskudunak baimendu beharko du gehiagotze hori.

Azken Xedapenak Laugarrena.— Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko maiatzaren 11n.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI